

## Antxiñako fotografixak

### Garibaiko torria gerra aurretik



**S**an Pedruak be badatozela-ta, Torreauzoko argazki zaharra dakartzuegu hillabete honetan. Bi bertsiñotan gainera. Auzuari izena emuten xauen **Garibaiko torre** historikua da. Arantzazu / Araotz aldetik datorren **Artixa** errekia eta Udana / Aloña-azpi inguruan sortzen dan **Ubao** alkarketan diran urkullu-puntu horrentantxe jaso euen euren torretxia Erdi Aruan Lazarraga-Garibaiko jauntxuak, jentillak gau batian egindako zubixaren aldamenian, gure herriko ipuin klasikuetan kontaitten dan moduan.

Azuak, egixa esan, beste leku batzuetan letxe, izen bat baiño gehiago euki dau gizaldittan zihar: **Lazarraga** hasieran, **Torreauzo** geruago eta **San Pedro** be bai sarritan, ermittiaren eragiñez. Oñatiko historixan inportantzia haundixa izandako hiru liñajek dakoi jatorrixa bertan: **Lazarragak**, **Araotzek** eta **Garibaik**, trungo bereko hiru familia nagusi, euren sortetxiak **Etxaundin**, **Elazarran** eta **Torrian** eukaiñak hurrenez hurren, gerora Oñatiko kalian eta beste herri batzuetan zabaldu baziran be.

Garibai familia Mondraguera be fan zan eta haren ondorengo bat **Esteban Garibai Zamalloa** (1533-1599) historia-dore famaua izan zan. Kuriosua da, baiña gaur egunian **Garibai auzua** errekiak eta zubixaz bestaldekuari esaten xako; hala eta guztiz be, leku-izenak kapritxoso samarrak izaten dira batzuetan, eta Garibaiko torria eta Garibaiko errota Torreauzoko baserrixak dira, ez Garibai auzokuak, antxiñagoko kontuen testigantza baten aztarrana mutuak izango balira lez.

Ba, bi fotografixok gerra aurreko Garibaiko torriaren itxuria erakusten doskue. Zaharrena ezkerrekuak emuten dau. Etxe aurreko **tejabaniak** eztako guk gerora eza-gutu gebenaren antzik; atzian ikusten dan baserrixa Garibai auzoko **Dolaetxe** izango da. Eskumakua 20-30 bat urte beranduagokua izan leike; ezkerreko estalpe horrek etxiarekin bat egitten dau eta eskumakaldian be beste tejabana bat dago, baserrixari erantsita; azkenengo hau gerra ostian bota zan, **Gumersindo Guridi** eta **Martiña Egañak** euren familiarekin batera han urte askuan euki euen auzoko tabernia jarteko. Ezkerreko estalpia, barriz, askoz geruago eretsi zan.

J.E



Ezkerreko argazkixa Oñatiko udal artxibuan gordeten da. Eskumakua María Comas Ros-ek 1936xan kaleratutako *Juan López de Lazarraga y el monasterio de Bidaurreta* izeneko liburutik atara dogu.